# europar ofizialen balentriak

*Txillardegi*

"Europa" ofiziala Estatuek osatzen dute, ez herriek ; teknokratek zuzentzen dute, eta ez jende xumeak. "Europa" hori (kakotxez idaztea, beharrezkoa), *ez da gurea*, haiena baizik. Mila bider errepikatua ; eta beste milatan errepikatu beharra.

Eta oraintxe eman digute beste froga bat : apirilaren 5ko bileran, Strasbourg-en, Lituaniar herriaren askatasun-eskubideaz, ezezkoa eman dute agintari "komunitarioek". *Lituania askatuari, ez.*

Ezetzaren pilare nagusia, "sozialista" ofizialek eraiki dute : PSOE-zialistek, Mitteranden lagunek, eta antzekoek. Ez baita harritzekoa, zoritxarrez.

Baietzaren aldeko botoa aztertzeak, ordea, badu zelebrekeriarik. Prentsa bidez jakin dugunez, eskuindar ofizialek eskatu dute Lituaniaren independentzia : Thatcher andreak, kristau demokratek, liberalek, eta antzekoek... Zergatik eskatu duten galdetu beharrik ez dago : *Mosku kondenatzeko*. Eskuindarren ustez Ekialdeko estatuetan ez baita ezertxo ere gertatu, *ez baita ezer aldatu...*

Hitz batez : Strasbourg-eko Parlamentuan, *inor ere* ez da agertu lituaniar herriaren alde : batzu *Moskuren aurka* agertu dira, eta beste batzu *muga sakratuen alde*.

Hau, nolanahi ere, ez da guztiz egia : "Ortzadar" taldea agertu da Lituaniarren alde. Erregela baiesten duen salbuespena.

Hori da "Europa" erreala ; "Sozialismo" errealaren kidea bailitzan. Eta, bestetango galdera datorkigu burura : zer espero dezakegu abertzaleok "Europa" ofizialetik ? Lituaniarrek baino gehiago ? Zergatik ?

Sakonkiago : zer diferentzia dago "Europa" ofizial horren, eta bere barruko estatuen artean ? Nork esan du Strasbourg-en gure nazio-arazoa Madrilen edo Parisen baino hobeki konprenitzen dutenik ? Zertan funtsatzen dute mirari hori ? Estatuei kentzen zaien indarra automatikoki herrien onerako dela esatea, zergatik ? Non daude frogakariak ?

"Europa" honen alde egotea, herri txikien eta mota guztietako ahulen kontra egotea da. Kitto.

Horregatixek txalotzen dute eskuindarrek. Berek, bai : berek ongi ulertu dute kakoa.

## ARRANGOITZE ERDIAN PLAZALDEKO BIDEA

(doinua : Maitatua sobera...)

Arrangoitze erdian daukute lapurtu
Plazaldeko bidea errotik suntsitu
Astezken hautsez dute dena ezeztatu
Eliza gibeleko ezponda lehertu.

Horko xori pollitek berena zaukaten
Ohantzen gordetzeko hoberik ez zuten
Ibilkarier udan itzala emaiten
Neguan aize hotzak minik ez egiten.

Zonbat beribil ez zen gogotik gelditzen
Xoko on ixil horrek zonbatak onhartzen
Zonbat gorputz ez ditu ikusi pasatzen
Doluminetan ziren asko hor ibiltzen.

Nolaz ? Zergatik kendu dolumen bidea
Jendetasun beteko zaukana fedea
Ahalgegarri zaiku utzirik gordea
Ezin aitortuzkoa zaukaten xedea.

Ixilik egoiteak gaitu denak galtzen
Har-eman eskasiak bake guti sortzen
Hola eginez ote herri maitatzen
Plazatik herritarrak segurki haizatzen.

Nork... zonbat... pagatu du bertzelako bide
Plazako bihotzetik urruti bertzalde
Trabatzen dituztenak ezpondak badaude
Poesia ttipiko jendeak dirade.

Lan txar hunen egile zirezte ohartu
Bortizkeri handi bat duzuela sortu
Behar duzue orai laster antolatu
Plazaldeko bidea denentzat libratu.

**Oxobi-ren itzala.**

■ Nous avons tenu informés nos lecteurs du différend qui oppose l'association "Herriarentzat" au maire d'Arcangues, M. Colo.

Portant sur la contestation d'uneZAC prévoyant l'urbanisation intensive des bords d'un golf privé actuellement en construction, l'affaire est entre les mains du Tribunal Administratif de Pau.

Ce dernier, après avoir reçu d'Herriarentzat le 14 mars dernier un mémoire en réplique sur le fond et une demande de sursis à exécution, vient d'informer l'association que l'affaire serait jugée au cours du deuxième semestre de cette année.

Tout reste encore incertain pour le projet municipal d'Arcangues et Herriarentzat n'a pas manqué d'en informer toutes les maisons du village par un bulletin imprimé distribué en même temps que sort ce numéro d'Enbata.

## SUR VOTRE AGENDA

**- Jeudi 12 avril 18h BAIONAN (IUT), conférence sur le développement économique dans sa dimension culturelle.**

- Vendredi 13 avril 20h ARBONAN (Arantzola) "zer ezker abertzale iparraldean ?", réunion organisée autour de "Aberri eguna, borroka eguna" à Hendaye, par Oldartzen kolektiboa.

**- Apirilaren 14an EZPELETAN (merkatu estalian) dantzaldi : Gazteok, Ipar Haize eta Iztripotzekin, Uztaritzeko ikastolaren alde.**

- Samedi 14 avril MUSKILDIN dans le cadre de la "campagne-anniversaire des 20 ans de Seaska", bal traditionnel de Pâques avec Minxoriak, au profit de l'ikastola.

**- Apirilaren 16tik 20era KANBON (Xalbador ikastegian) AEKren ikastaldia erakasleen fagoretan. Tel 59.25.76.09**

- Apirilaren 17tik 20era DONIBANE LOHITZUNEN (Dukontenian) gau eskolako ikastaldia klasea jadanik hartzen edo hartu dituztenentzat. Tel 59.26.46.02

**- Apirilaren 20an 21etan BAIONAN (San Andres elizan) kantaldia Benito Lertxundirekin. Lehen partean Magali zubillaga eta ondotik Matias, 12 urteko biolonista. Gero besta Baiona ttikian.**

## IPAREGABE

■ Le quotidien Deia publie son supplément trimestriel sur le Pays Basque Nord *Iparegabe*. Il est conçu par EIA, l'agence HEDA et réalisé par Ostoa avec la simplicité et l'efficacité graphique que tous lui reconnaissent. De la Soule qui demande son rattachement à la Chambre de Commerce de Bayonne, à l'école trilingue d'Urepel ouverte aux enfants de Bayonne et Pampelune en passant par un panorama des médias écrits et audiovisuels dans nos trois provinces, voilà un bouquet "d'images et de reflets" printaniers. Le lecteur du Sud y lira au fil des pages notre volonté silencieuse mais profondément enracinée de vivre en basque dans ce pays.

**abonnez-vous**

## A SAISIR

■ La collection reliée des numéros d'Enbata de l'année 1989 vient de nous être livrée. Elle est disponible dans nos bureaux au prix de 250 F.

Il reste encore quelques collections reliées des années précédentes.



## CETTE SEMAINE TARTARO s'est étonné :

... de l'amnistie générale qui a dégouliné sur les gros bonnets de la droite et de la gauche françaises. On nous avait dit que la Suisse lavait plus blanc. On saura désormais que la France lave encore plus blanc.

**... du vieux cliché présenté aux journalistes parisiens en vue de la prochaine saison touristique : "Verdure, embruns, golf, jambon, saucisson, pâté, grand vent, surf, thalasso, force basque et curés-en-soutane-qui-jouent-à-la-pelote-avec-les-gosses" (sic) Pierre Loti pas mort... sauf le talent !**

... que Georges Montaron (directeur de Témoignage Chrétien) dont on connaît la devise (Vérité, Justice, quoi qu'il en coûte) prétende, lui aussi, que le réveil des nationalités affecte *seulement* l'Europe de l'Est. Pense-t-il tout bas qu'un jour, à son tour, l'Hexagone pourrait perdre quelques plumes ? Croyez à ma devise... mais touchez pas à mes devises !

**... de l'énorme facture (7 millions 500 000 centimes) que la "justice" française veut faire payer à Xan Coscarat pour avoir été mis sur écoute téléphonique. Et pourtant, Messieurs les Juges, qui passe commande paie !**

... que le commissaire Boslé, après l'arrestation de 16 Basques d'Ipar-alde, ait déclaré : "L'Ipar-aldeko buru-batzar existe : je l'ai rencontré !"

**... qu'on ait fait sortir Filipe Bidart de l'isolement carcéral trois jours après la grosse manif organisée en sa faveur. Vox populi...**

... que certains se soient étonnés de reconnaître Jean Pierre Destrade en photo derrière Philippe Saez. Vous en connaissez des photos où on ne voit pas l'ancien député de la Côte Basque ?

Esnal-Duperou, Bixente Garcia, Jon Parot, Panpi Erramundeguy, Jose Otxoantesana. Manque la photo de Pantxoa Denis.